



Hurrengo urteetako Lasarte-Oria ikusgai egongo da maketa birtualean /5

Espero bezala kontzertu arrakastatsua eskaini zuen Taxi taldeak.

Auditorioa beteta

Taxi taldearen kontzertua ikusteko gonbidapenak banatu zituzten, asteazkenarako bukatu ziren

Udaleko Gazteria eta Festa Sailak eta Cadena 100 irrati kateak antolatutako kontzertuaz ederki gozatu zuten gonbidapena lortu zutenek. Taxi taldea gibraltarra da eta boskoteak *Mirando* atzoko abestiak eskaini zituzten. Jendea eserita egon ezin eta zutik jarri zen dantzatzeko eta abesteko. Oso giro polita jarri zuten, azkeneko auditorio osoa dantzan jartzea lortu zuten. •

KIROLA ■ 2

Santos Uribe dominarik gabe itzuli zen Espainiako txapelketatik

KULTURA ■ 5

Zinea euskaraz ikusteko aukera izango da ostegunean Jalgi kafe-antzokian

GIZARTEA ■ 6

Txosnak arautzeko lege berriaren aldeko sinadura bilketa egiten ari da Sorgin Jain Batzordeak

Teknologia eta dantza uztartuta

Ostiral iluntzean Circle of trust hip-hop dantzak eta Logela multimediarren musikak eta bideo-sorkuntzak osatutako Papiro...flexia emanaldia eskaini zuten. Bertan dantzarien aurrean zegoen pantaila erraldoi batean proiektatzen zituzten zenbait irudi. Irudi horiek batera dantzariek osatzen zituzten formekin konbinazio ederrak sortu zituzten. Emanaldi hau Dantza Garaikidearen V. Zirkuituaren barruan dago. Hurrengo maiatzaren erdialdean izango da. •



ASTE SANTUKO TXOKOAK

Noiz: Apirilaren 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17
Goizeko 9:00etatik 13:30ak arte.

Adina: 2tik 8 urte bitarteko haurrak
(2001-2006 bitartean jaioetakoak).

Matrikula: Apirilaren 2ra arte 943 37 14 48

Ttakun K.E. Geltoki kalea 4, Amaraun ludoteka, Ola kalea 1



www.ttakun.com asia@ttakun.com



Lasarte-Oria Udaltzaia Euzkoan
Bertarain (2001-2006) jaioetakoak
Programa subvencionatua per la Conselleria de
Edukazio del Ayuntamiento de Lasarte-Oria

Santos Uribe dominarik gabe itzuli zen Españako txapelketatik

■ Bere kirol bizitzan lehenengo aldiz kanporatu dute martxa proba batetik ■ Ezin zuen sinestu azken itzulian atera zioten txartel gorria

Santos Uribe herriko ibiltariari bizitzan lehenengo aldiz atera diote atletismoko martxa proban txartel gorria. Murtzian, aurreko asteburuan, martxoaren lehen egunean,

Españako Martxa Txapelketaren azken itzulian zela kanporatu zuten epaileek eta eskura zuen urrezko dominarik gabe itzuli da Lasarte-Oriara. Pena eta amorrua sentitu

zuen epaileak "lo siento chaval" esan eta txartel gorria erakutsi zionean. Ez zeukan martxa azkartu beharrik, bere buruaren kontra ari baitzen, ez zeukan kontrariorik.

Jon ALTUNA

Beteranoen mailako ibilaldi neurtu txapelketan 10 kilometroko probaren azken itzulian kanporatu zuten Santos Uribe herriko atleta. Ezin zuen sinestu, Uribe berak aitortu digunez: "bizitzan sekula ez zait gertatu horrelakorik, ezta Europako edo Munduko Txapelketetan ere". Berez bi lehiaketa hauetan estuago aritu zen, oraingoan baino martxa azkarragoa ibili zuen bere uestez.

Txartel gorria ikustean, eskuak aurpegira eraman eta proba utzi besterik ezin izan zuen egin. Ez zuen ulertzen, amorru handia sentitu zuen, —epaileak zorrotzegiak izan zirela uste du—, eta pena ere bai, "behin haraino joan eta gero" esan zigun biharamunean.

Murtziako San Pedro Pinatar herrian bi kilometroko zirkuituan jokatu zen Españako LXXVIII. Ibilaldi Neurto lehiaketa honetan domina berea zen ziur ez dagoelako bere mailan, 70 urtetik gora, parte hartzen duen beste inor.

26 ordu autobusean

13 ordu eman zituen autobusean Murtziaraino joateko. "Zumeatarra taldeko Andoaingo laguna eta biok, ostegunean gaueko 21:30ean atera eta goizeko 10:30ean iritsi ginen Murtziara. Autobusean, ordu erdi bat geratu ginen soilik ogitarteko bat jateko. Bueltan igandean arratsaldeko 6etan atera eta astelehen goizeko 7etan heldu gara" esan zigun astelehenean bertan Lasarte-Orian.

Andoaingo Zumeatarra Elkarteko taldearekin aritzen den Santos Uribe esan digunez, hankan izan duen arazo baten ondorio izan daiteke kanporatzea. Hanka batean juanikote bat dauka, eta probaren bezperan nabaritu zuen traba edo min apur bat egiten ziola, Gatzaga batzuko ikusteko aitzakiarekin egin zuten beroketa joan-etorrian. "Eta agian horregatik ez nuen pausua behar bezala botatzen".



"Lo siento chaval" esan zion epaileak 74 urteko Santos Uribe gaztetoari.

“Pena ezer gabe itzultzea, behin haraino joan eta gero. 13 ordu behar izan genituen autobusez joateko eta beste 13 etortzeko.

Koskorra gaiztotu egin zitzaion proban zehar, hori izan zen eguneko arazo bakarra. "Bestela fisikoki oso ondo nengoan, oso ondo nindoan" esan zigun herriko ibiltariak. "Ez neukan bukatzeko arazorik, baina asko sofritu nuen hankako arazoarengatik".

70 urtetik gorako bakarra

Gainera ez zeukan zertan arriskatu beharrik, bera bakarririk baitzen 70 urtetik gorako proban. Baina ez zuen inola ere horrelako zigorrik espero. Aitortzen du kanporatu zuteanean martxa onean zihoala,

presiorik gabe, baina ibilaldi neurtuan aurrean dabiltzan kirolariak zitzu bizian pasatzen ziotela. Esaterako 50 kilometroko proban garaile izan zen Paquillo Fernández edo hirugarrena izan zen Mikel Odriozolak.

Oraindik astelehenean ez zuen ulertzen nola zigortu zuten 74 urteko kirolaria. "Oso zorrotzak izan ziren epaileak hain zaharra horrela zigortzeko. Beste batzuk oso azkar aurreratzen ninduten, baina horiek ez dituzte zigortzen, agian azkar azkar doanez egingo dute ondo ikusi

araua betetzen duten ala ez eta mantsago doana errazago ikusten eta harrapatzen dute". Ez zion beste zergatirik ikusten. Agian hankako arazoaren ondorioz ez zuela ondo zapaltzen.

Hankako mina

74 urte ditu Uribe, baina ondo ikusten du bere burua, sasoiari. Arazo bakarra hankako koskorak ematen dio. Tar-teka gaiztotu egiten zaio.

Konponbidea ebakuntza dela esaten diote sendagileek, baina momentuz ez du ezer erabaki. Denborarekin ikusiko du Europako onenen artean lehiatzen segitzeko zein konponbide hartu ala orain arte bezala jarraitu.

Gainera hurrengo urtean adinaren arabera beste maila batera pasa eta mailako gaztetuetarikoa izango da. •

Kirol emaitzak

Futbola

Ostadar-Hernani (Infantilen Ohorezko Maila, kopa)	2-2
Ostadar-Aloña Mendi (Kadeteen Ohorezko Maila, kopa)	0-3
Ostadar-Touring (Infantil Txiki kopa)	1-4
Lasarte BHI-Zarautz (Eskolarteko infantilak) ...	4-9
Danena-Texas Lasartearra (II. Erregional, kopa)	4-1
Ostadar-Intxaurdi (Emakumezkoen liga, kopa)	5-0
Zumaia-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11, txapelunen fasea)	0-3
Amaroz-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa)	4-5
Antiguoko-Ostadar (Alebinak, txapeld. fasea) ..	5-0
Axular Lugaritz-Ostadar (II. Erregionala, igoera) ...	0-2
Santo Tomas Lizoea-Ostadar (I. Jubenila, igoera fasea) ..	6-3

Areto-Futbola

ISU Leioak-Zarautz (Gipuzkoako liga, I maila) ...	4-1
Alegria-Aldaz H.K. (Euskal Liga)	4-4

Saskibaloia

Aldapeta Nucleo-Ainhoa (Gizonetako seniorak) ...	34-66
--	-------

Kiroltako oharrak

Arrantza baimena

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du 2009ko denboraldiko arrantza baimena eskatzeko epea ireki dela. Baime-na bideratu nahi dutenek astearte eta ostegunetan 19:30etatik 20:30etara egin ahalko dute elkarteak. Baimena eskatzeko azken eguna martxoaren 12a izango da.



Zinea euskaraz Jalgin ostegunean

■ Zortzi film labur eskainiko ditu Ttakunek ■ Emankizunak guztira ordu beteko iraupena izango du

Topaguneak antolatzen duen Film Laburren VI. Zirkuitua ostegunean iritsiko da Lasarte-Oriara besteak beste Erroma eta Bartzelonatik pasa ondoren. Paris edo Shangaira ere iritsiko dira Euskal Herriko zortzi zuzendarik azken bi urtetan egindako laburmetrailak. 21:00etatik aurrera ordu beteko emankizuna eskainiko da Jalgi Kafe Antzokian. Euskaldunek egindako zinea euskal ikusleengana eramango dute beraz aurten ere Topaguneak eta Ttakunek.

Jon ALTUNA

Zortzi istorio labur eskainiko dira ostegun honetan 21:00etatik aurrera Jalgi tabernan. Topaguneak bultzatzen duen zirkuitua Euskal Herriko eta kanpoko hainbat aretoetara iritsiko da. 46 tokitan emango dira martxoaren 5etik apirilaren 7ra bitartean euskaldunek egindako filme laburrak.

Ttakun Euskara elkarteak antolatu du Euskarazko Film Laburren emanaldia. Denetarik gaiak jorratzen dituzte, erdiak lau minututik behera-koak dira, laburrena bi minutu eta 45 segundokoa; luzeena, aldiz, 14 minutukoa da.

Aste honetan aurkeztu zirkuitua Topagunean Bilbon.

"Egiatik gezurrezko bizitzara" filmea hamar ordutan idatzi, ekoitzi eta zuzendu zuten kameratoia ekimenean



VI. ZINEA EUSKARAZ Film laburren Zirkuitua

Zortzi filme labur euskaraz

KABIA	Amaia Uribe, Garazi Sánchez, Eider Rodríguez, Nagore Arozena, Garazi Rodríguez, Egoitz Sánchez eta Maialen Sukunza	2007	8 minutu
LO BAKARRIK	Iban del Campo	2008	14 minutu
MUSIKA	Asier Urbieta	2007	4 minutu
BERDE	Jose Luis Barredo eta Iñigo García	2007	8 minutu 40 segundu
EGIATIK GEZURREZKO BIZITZARA	Ander Odriozola, Iñaki Andonegi eta German Rubio	2008	3 minutu 57 segundu
POEMA BATEN IRAKURKETA EUSKAL HERRIAN	IKB: Xabier Iñarrairaegi eta Karlos Eriz	2008	12 minutu
P. D. ONDO IBILI	PuntutapArte: Yera Sanchez, Xabier eta Iñaki Zapirain Maite Leizaola, Muxi Lopetegi eta Garazi Urdanpilleta	2008	2 minutu 45 segundu
BANKUAREN LAPURRETA	Iñigo Aranbarri, Txaber Fernández, Kimetiz Blanco, Julene Larrañaga, Josu Martínez, Txaber Larreategi eta Olatz Arriola-Bengoa.	2008	2 minutu 45 segundu

"Egiatik gezurrezko bizitzara" filmea hamar ordutan idatzi, ekoitzi eta zuzendu zuten Topagunearen kameratoia ekimenean barruan.

Esperientziadunak

Besteei dagokionez, Iban del Campo arrasatearra eta Asier Urbieta oreretarra esperientzia duten zuzendariak dira, aurretik hainbat filma grabatuak dituzte.

Bestalde, Jose Luis Barredo eta Iñigo Garcia osatutako bikoteak ere hainbat proiektu gauzatu ditu elkarrekin euren zinerako zaletasuna bideratuz.

Azkenik Xabier Iñarrairaegi-Karlos Eriz bikotea 1994tik ari da elkarrekin Elorrioko IKB produktoran, dokumental, erreportaje eta publizitatea eginaz. Zirkuituan aurkezten dutena Torturaren Aurkako Taldeak ekoiztutakoa da eta torturatuak izan diren herritarrek agertzen dira. •

Lasarte-Oriako 2009. urteko literatur lehiaketaren oinarriak argitaratu ditu Udaleko Kultura Batzordeak. XXIII. literatur lehiaketa izango da aurtengoa eta herriko haur eta gazteen mailakoa XXIII.a.

Euskaraz eta gazteleraz sari bana emango da Ipuin eta Poesia ataletan. Gainera herrian eroldaturik daudenean "Lasarte-Oria" sari berezia eskuratzeko aukera izango dute. Sariak 1.000 eurokoak dira sail bakoitzean eta herriko lan onenek 300 euroko saria eskuratu dute. Beraz 1.000 euroko lau sari izango dira eta 300 euroko beste lau, ipuin eta poesian, euskaraz eta gaz-

2009ko literatur lehiaketa martxan

- Ipuin eta poesia atalak izango ditu euskaraz eta gazteleraz
- Lasarte-Oriako idazleentzat sari bereziak izango dira
- Herriko haurren sariketarak hiru maila ditu adinaren arabera

teleraz. Aurreko urteetan sariak izan diren pertsonak ezin dute berriro saria jaso zuten sailean parte hartu.

Maiatzaren 8ra arte

Lanak, 2009ko maiatzaren 8ko eguerdiko 13:00ak baino lehen eraman beharko dira Manuel Lekuona kultur etxeko bulegora. Posta ziurtatuz epea-

ren barruan bidalitako lanak ere onartuko dira. Lanak, argitaratu gabeak izan beharko dute, argitaletxeren batekin argitaratzeko eskaini gabeak eta beste lehiaketa batera aurkeztu gabeak.

Epaia urriaren emango du kultura batzordeak izendatutako epai mahaiak eta sariak azaroaren 28an banatuko dira.

Bestalde, herriko gazte eta haurren artean literatur sorkuntza bultzatzeko asmoarekin, XXII. Literatur Lehiaketa antolatu du Udalak, euskaraz eta gazteleraz, poesia eta ipuina. Lanak aurkezteko epea berbera da. Hiru maila egongo dira adinaren arabera, (94-95-96an jaiotakoak; 97-98-99an jaiotakoak; 2000 urtean eta

ondoren jaiotakoak). Ipuin lehiaketan maila bakoitzean hiru sari emango dira 150, 112 eta 76 eurotakoak. Poesia lehiaketan bai euskaraz eta bai erdaraz, 150 euroko sari bakarra izango da kategori bakoitzean. Haur eta gazteen sari guztietan erdin dirutan emango da eta beste erdia liburuak erosteko txartel batean.

Ipuinak gehienez 10 orrialdekoak izango dira eta poemak gutxienez 300 bertso lerrotakoak. Haurren mailetan ipuinak 2, 4 eta 8 orrialdekoak (adinaren arabera) eta poesian txikienek 50 bertso lerrokoak aurkeztu behar dituzte eta beste guztiek 75 lerrokoak. •

‘Hemen ikusgarriago gaude’

■ Udal Euskaltegiak egoitza berria du ■ Tamaina aldetik aurrekoaren antzekoa baina kokapena hobea dela uste du Jesus Mari Asurabarrena zuzendariak

Anbulatorio berriaren gainean egoitza estreinatu zuen Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiak duela egun gutxi. Berri usaina nabaria da bertan, jarri dituzten altzari txukunei esker gehienbat, eta

orain duten kokapena Zumaburuko egoitza zaharrarena baino hobea da haientzat. Gainontzean, aldaketa gutxi: betiko irakasleak, betiko ikasleak, betiko materiala. Trauma handirik

gabeko lekualdatzea izan da, beraz, bi egun eskasetan egindakoa. Aurreneko egunetako arazotxoak alde batera utzita, irakasleak nahiz ikasleak gustura utzi dituen.

Amaia PORTUGAL

Ez dute denbora askorik behar izan tokiari neurria hartzeko. Otsailaren 23an eta 24an egin zuten lekualdatzea, eta 25erako bertan eskolak ematen hasiak ziren jada. Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiak egoitza berria du: Zumaburu utzi eta herri erdi-erdira joan dira, ambulatorio berriaren gainean baitute lokala orain, Beheko Kale bideko lehenengo zenbakian. Lehenengo tokian ere gustura zeudela aitortu arren, Udalaren beraren ekimenez etorri den aldaketa honek kalterik behintzat ez diela egin garbi du Jesus Mari Asurabarrena Udal Euskaltegi zuzendariak: “Hemen ikusgarriago gaude, jendearen bistarago. Lehen ezkutuago geunden”.

Aldatu berriaren arazoren bat edo beste izan zutela azaldu du Asurabarrenak, baina azkar konpondu zizuztela gorabehera txiki horiek. Esate baterako, aurreneko egunetan berogailuak eta telefonoa ez zebiltzan, eta Udaleko ordenagailu konexio orokorrak ere arazoak izan zituen egun horietan. Honez gero “normaltasuna” da nagusi, dena dela. Euskaltegia bertan dagoela iragartzeko sarreran kartela jarzea falta zaie, eta ezer gutxi gehiago. “Gortinak falta dira, intimitatea emateko, pixka bat erakuslehoan bageunde bezala gaudelako”, gaineratu du Asurabarrenak.



Jesus Mari Asurabarrena, eskuinetik hasita lehen, lankideekin, Udal Euskaltegiaren egoitza berrian.

Udal Euskaltegiaren egoitza berriak aurrekoa baino txikiagoa den itxura ematen du. Hala ere, ondoan dagoen Kontsumo eta Informazio Bulegoarekin batera daukaten areto nagusia gehituta, 340 metro koadro dauzka; egoitza zaharraren antzekoa da tamainaz, horrenbestez. Eskolak emateko bost gela dauzkate guztira; 18 bat ikaslerentzako moduko hiru eta dozena bat ikasle har ditzaketen beste bi. Liburutegia ere badute, ikasleek bertan lanak

egin eta bideok ikusteko aukera izan dezaten. Ordenagailu gela txukun askoa jarri diete; autoikaskuntzako ikasleak eta entzungaiak edo dokumentazio lana egin nahi dutenek erabiltzen dute hori. Horri guztiari irakasle gela eta aipaturiko areto nagusia gehitu behar zaizkio.

Gaur gaurkoz, altzariak dira egoitza berriko nobedade nagusia, ordenagailuak eta gainontzeko materiala eraikin zaharretik ekarri baitituzte. Hala ere, ordenagailuen gela

handiagoa dute orain. Aurretik zituzten hamar ordenagailuekin jarraitzen badute ere, beste hamar jartzeko tokia dute orain. “Pixkanaka hamar ordenagailutik hogeira arteko hori hornitzen joango gara”.

Poliki-poliki egin beharreko gauzak dira horiek, baina orain artekoarekin, behintzat, denak konforme daudela dirudi: “Ikasleak ere gustura daude. Hona sartu eta gela eta mahai berriek ematen duten inpresioa polita da”, dio Asurabarrenak.

125 ikasle eta bederzti klase aurten

Une honetan 125 bat ikasle dituzte Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiaren, autoikaskuntzan diharduten zortzi ikasleak kontuan hartuta. Ikasturte honetarako ez dute 0.0 mailan taldea osatu, baina Asurabarrenak esan bezala, “hasierako maila horren hutsunea kenduta guztiak dauzkagu: 1a, 1b, 2.ena eta 3.ena”. Bederzti talde dituzte guztira, goizez nahiz arratsaldez.

Beti bezala hamabi urrats izan arren, dagoeneko ez dago klase bat urrats bakoitzeko. “Taldea berean maila ezberdineko ikasleak ditugu eta material berarekin egokitzen kurrikularrak egiten ditugu. Urrats bakoitzarekin klase bat osatzeko aukerarik ez dago jada. Gutxienez hamarrek taldeak osatu behar ditugu”.

Ikasturteak iraila eta ekaina artekoak badira ere, Udal Euskaltegia beti dago ikasleak hartzeko prest, aurrez martxan dauden klaseetan tokia dagoen bitartean. Bertan galdetu besterik ez dago.



Kontsumo Bulegoaren eta Udal Euskaltegiaren areto nagusia.

- Material elektrikoa
- TB/Hi-Fi
- Argiak
- Instalazio elektrikoak
- Exetresna elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



Martxoaren 27ra bitartean ordenagailuak jarriko dira kultur etxean Lasarte-Oriaren itxura berria bideo, argazkiak eta planoen bidez ikusteko. Irudian, Okendo.

Hurrengo urteetako Lasarte-Oria erakutsiko da maketa birtualean

- Herriaren itxura berria ikusteko aukera izango dute herritarrek
- Bideo birtuala asteazkenean 19:00tan emango da Kultur etxean

JON ALTUNA

Lasarte-Oriak hurrengo urteetan izango duen itxura ikusteko aukera izango dute herritarrek. Udalak maketa birtual bat prestatu du, hiriaren antolamendua finkatuko duten Arau Orokorrak jakinarazi eta ondorengo urteetan garatuko diren egitasmoen ondoren herriak hartuko duen itxura erakusteko.

Maketa, datorren asteazkenean, martxoak 11, aurkeztuko da kultur etxean eta ostegunetik aurrera liburutegi atarian jarriko diren ordenagailu batzuetan eta Udalaren webgunean ikusi ahal izango da.

Udaleko ordezkariak jakinarazi dutenez hiri antolamendurako Arau Orokorren maketa dokumentu ikusgarria da: maketaren bidez udalerririak etorkizunean izango duen itxura ikusi daiteke. "Lasarteoriarrak eraldaketa horren parte-hartzaile eta ezagutzaile egin nahi ditu Udalak".

Aurkezpina arratsaldeko 19.00etan hasiko da Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Etorkizuneko udalerria erakusten duen bideo birtuala ikusteko aukera eskainiko da. Horrela hegaldi birtual bat egin da eta martxan dauden edota martxan

jarriko diren proiektuen irudiak erakutsiko dira goitiki begiratuta.

Hainbat proiektu ikusgai

Aurkezpina hainbat ataletan banatuta egongo da: hiri-lurra, urbanizatu daitekeen lurra eta urbanizaezina. Atal horietan hainbat egitasmo jasoko dira, Loidi-Barren, Okendo, Kotxeras, Goiegi Ibarra, Zabaleta Berri, Goiegi Gora, Oria Gain, Zatarain eta Plazaolako parkeko proiektuak alegia. Programa birtualak egitasmo bakoitzaren bideoak, argazkiak eta planoak ikusteko aukera eskaintzen du.

Manuel Lekuona kultur etxeko liburutegiko sarreran

zenbait ordenagailu jarriko dira asteazkenetik aurrera herritarrek etorkizuneko Lasarte-Oriaren eta hurrengo urteetan burutuko diren aldaketan informazio hori jaso dezaten. Maketa birtual hori martxoaren 27ra bitartean ikusi ahal izango dute nahi duten guztiek ordenagailu horietan. Gainera maketarekin jokatzeko eta elkar eragiteko aukera eskaintzen du Udalak.

Gainera, ostegunetik aurrera, maketa birtuala ikusteko lotura bat izango da Udalaren webgunean, eta baita Arau Orokorrak kontsultatzeko erreminta bat ere. •

MARTXOAK 8

Udala EUDELen adierazpenekin bat

Lasarte-Oriako Udalak bat egin du EUDEL Euskal Erkidegoko Udalen Elkarteak egunotako krisi ekonomikoa eta emakumearen egoerari buruz argitaratu duen adierazpenekin. Eudelek dio, lana dela euskal herritarren ardura handienetako bat; euskal erakundeek (tartean Udalek) krisiari aurre egiteko hainbat neurri abiarazi dituztela; industria eta zerbitzu sektoreek jasan dituztela lanaren galerarik handienak; eta ondorioz, lanaren beharakadak eragin handiagoa izan duela gizonengan, emakumeengan baino. Hala ere, EUDELek azpimarratu duenez, oraindik ere "emakumeen okupazio tasa gizonena baino txikiagoa da (%59,1 eta %74,8, hurrenez hurren)".

Adierazpenaren arabera, krisiaren aurrean lana sortzea bideratutako neurri guztiak positibotzat hartzen dira, baina, beharrezkoa da plan horietan "emakumeak baztertu ditzakeen genero norabideak aurrez ikustea eta saihestea".

EUDELek uste du krisi egoeraren ondorioz arriskua dagoela "gizarte eredu patriarkal eta sexista berpizteko (gizon hornitzailea/emakume zaintzailea), orain arte landu dugun erreferente berdintzailearen ordez; hau da, emakumezko zein gionezko hornitzaileak eta zaintzaileak berdintasunean". Bere ustez, neurriek eragin ezberdina izango dute emakumeengan edo gizonengan eta horregatik adierazten dute beharrezkoa dela "emakumeen eta gizonen eskubide guztiak osotasunean bermatzea eta honezkero gure artean dagoen desberdintasunezko arrakala gehiago ez zabaltzea".

Beraz EUDELek eta Lasarte-Oriako Udalak konpromisoa hartu dute "berdintasunaren aldeko tokiko politikak indartzeko". Euren ustez, krisi garaia udal eredu berdindagoetarako bidea egiteko aukera da. •

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest

UNIBERTSITATEA BIZITZKO PREST!

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MARTXOAK 12 - 17:30 osteguna
ARRASATE-MONDRAGON AULA MAGNA
Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata
ORDIZIA AULA MAGNA
Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

APIRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata
OÑATI AULA MAGNA
Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

APIRILAK 2 - 18:00 osteguna
IRUN AULA MAGNA
Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MARTXOAK 12 - 18:00 osteguna
ESKORTIAZTA AULA MAGNA
Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

Txosnak arautzeko lege berriaren aldeko sinadura bilketa Lasarte-Orian

■ Sorgin Jaien Batzordeak 1997ko txosnen legearen aldaketa bultzatu nahi du

TXINTXARRI

2000 urtean izan ziren azken txosnak Uistin kalean, 2002an Jalgi ondoan zegoen egunkariak saltzeko kioskoa erabili zuten txosna modura, ostean Sorgin jaiek gune ibiltaria izan zuten, 2006an Udalaren baimena eta gunea lortu eta geroztik, Sorgin Jaiek Udalak antolatzen duen programaren osagarri dira.

Baina 1997ko legeak indarrean jarraitzen du. Sorgin Jaien Batzordeko kideekin hitz egin dugu eta "97ko legeak txosnen debekua ekarri zuen. Azken urteotan ez da aplikatu, gainera pasa dute. Ez ikusiarena egin dute. *Limitekin pasatzen ez bazarete* zen haien erantzuna. Baina non daude limite horiek, haientzat batzuk dira eta guretzat beste batzuk izan daitezke. Horregatik esan dugu, goazen egoera behingoz legezatzera," adierazi digute.

Honela abenduan hasi ziren Gazteria eta Festak Saileko zinegotziarekin hizketan, "balorazioa egin genuen. Positiboa izan zen udalaren partetik eta gurea ere. Baina gu bilerara ez ginen bilera bat egitera joan. Arazoa errotik konpontzera joan ginen eta harritu ziren. Lekua zehaztera joango ginela uste zuten, baina gu lege berria egitera joan ginen, non gu txosnaren ezaugarriak, oholtza, uraren hornidura, erdigunean egon behar duela, etb. zehaztasun ematen genion. Zinegotzia oso gustura geratu zen, batez ere, ez zuelako esaten non kokatuko zen eta gunearen deskripzioa egiten genuelako. Ados jarri ginen, legea egin genuen eta haiek legea aldatzen hasi baina alkateak eze-tza eman zuen, 97ko legea indarrean jarraitzen zuela.

Orduan gu mahaitik altxaginen."

"1997ko lege horrek ez du aurreikusten batzorde baten, Sorgin Jaiek kasu, eta Udaltxe arteko harremana, besteak beste," esan digute eta zera atxiki, "Guk beti esan dugu, Sorgin Jaien helburua ez da txosna jartzea, asmoa da jaia batzuk antolatzea non egongo diren txosna batzuk. Berez ez zaigu interesatzen txosna jartzea, baina egun beharrezkoa da Jaiek ordaintzeko. Etorkizunean lau txosna jarri eta horien artean jaia ordaindu eta guk jaiek antolatzen baditugu, listo," onartu dute.

"Guk ez dugu herriaren jaien aurka boikota egingo, gu jaiek antolatzen goaz. Goazen ba duela hamar urte hasi zen kalbarioa amaitzera eta garai berri bat hastera. Era honetara, legearekin jaiek antolatzen datorren jende heldua edo gazteek nondik jo izan dezaten eta arazorik ez jaiek egiteko," atxiki dute.



lazio Sorgin Jaientan giro ezin hobeagoa zen goiz, zein gauetan. Argazkian, karaoke momentuan gunean bildu zen jendea.

Sinadura bilketa

Egun legea aldatzearen aldeko sinadura bilketa egiten ari dira, "herriak ematen duen erantzunaren zai gara, sinadura bilketaren bidez, eta horrek indarra emango digu

akordioa lortzeko. Gainera, atxikimendu orriari herriak Udalari eta guri eskatzen digu harremana izatea."

Atxiki nahi den orok tabernetan, Basaundiko okindegian eta Zabaletako dendan aurkitu

ko ditu "herriko dendetan jartzeko asmoa dago eta Institutuan eta eskoletan egon gara," aipatu digute. Gainera, "300 bat sinadura biltzea espero genuen eta 500 bat ditugu. Hurrengo astean aurkeztu eta ikusiko dugu zer gertatzen den legearekin," adierazi dute.

2009ko San Pedroak

Batzordearen ustetan, egoera ez da beltza eta 2009ko Sorgin Jaieko egitaraua antolatzeko hasiak direla aipatu dute. "Aurten gainera 6 egunetako egitaraua izango da. Berrikuntza asko eta potentekin eta adin guztietarako ekintzekin," aurreratu digute.

Legez kanpo jokatu duela badakite baina haiek dioten bezala "jaietan adierazpen guztiak izatea nahi dugu. Indar guztiak akumulari nahi ditugu jaiei eta legeri babesa emateko eta jaietan parte hartzeko. Izan ere, taldeei pixkanaka eskatuko diegu bere adierazpena egitea. 6 egun daude horretarako eta beteko ditugu." •

Udalaren 1997ko legea

Txosnen kopurua bostean finkatzen da

Udalak finkatutako tokian eta denboran ipiniko dira txosnak

Eskaerak Udaltxeko erregistroan egin behar dira; Baimenak alkateak onartu behar ditu; Hurrenkeraren arabera erabakiko da zein txosna jarriko den eta gehiago badira zozketa egingo da

Oholtzarrik ez da aipatzen

Musikarrik ez da egongo
3:00etatik 9:00etara;
24:00ak arte, 90 dezibelio
eta, ondoren, 45 dezibelio

Sorgin Jaien lege proposamena

Sorgin Jaien Batzordeak finkatuko dute txosnen kopurua

Kokapena Udalak eta Sorgin Jaien Batzordeak adostua izango da eta erdigunean

Gunearen gestioa Sorgin Jaien Batzordearen esku geratzen da

Oholtza egongo da

Musika astean zehar kontzerturik ez 3:00etatik aurrera eta musika 5:00ak arte; Musika asteburuan kontzerturik ez 4:00etatik aurrera eta musika 5:00ak arte; Musikarrik ez 5:00etatik 10:00etara; Zarataren azterketa eta araudia Sorgin Jaien Batzordeak egingo du



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publikizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

ANGEL NUÑEZ donostiarraren Paisaia begiralea argazki erakusketa ikusgai egongo da. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Astelehena, 9

Zine soziala

VOLVERAS filma eman eta Ekin-tza-Dasalud elkarteak hitzaldia eskainiko du ludopatia gaiatzat hartuta. Danok Kidek antolatutako V. Zinema Soziala zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean.



Ostirala, 13

Kontzertua

THE BILLIE JEANS taldearen kontzertua Udaleko Gazteria Sai-

Zinea euskaraz ostegunean Jalgin

VI. Film Laburren zirkuituaren barruan sartu da Jalgi berriro ere. Aurtengo zikloan Kabia, Egiatik gezurrezko bizitzara, Lo bakarrik, Poema baten irakurketa Euskal Herrian, Musika, P.D. Ondo ibili, Berde eta Bankuaren lapurretara film laburrak eskainiko dira.

OSTEGUNEAN, JALGIN
21:30EAN, EUSKARAZ

lak eta Xpressionk zirkuituak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.



Larunbata, 14

Antzerkia

HANDITAN lana eskainiko du Glu glu antzerki taldeak. 5 urtetik gorako haurrentzako emanaldia izango da. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

EUSKARAZ.

Igandea, 15

Zinea

EL LINCE PERDIDO filma eskainiko da haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean 17:00etan. GAZTELANIAZ.

Astelehena, 16

Zine soziala

LO MEJOR DE MI filma eman eta gero Alcer elkarteak hitzaldia eskainiko du gorputz organoen emaitza gaitzat hartuta. Danok Kidek antolatutako V. Zinema Soziala zikloan. Kulturetxean, 17:30ean.



Osteguna, 26

Zinea

LA OLA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.



Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Kolon minbiziaren proba

Lasarte-Oriako Osasun Zentroak eta Donostia Ospitaleak doan eskaintzen ari dira koloneko minbiziaren antzemate goiztiarrerako proba bat 50 eta 69 urte arteko emakume eta gizonezkoen artean. Hauei guztiei probarako gonbidapen pertsonala bidaliko zaie postaz.

Udaletik proiektu honetan parte hartzerantz animatzen zaituztegu, izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu koloneko minbiziaren antzemateko eta prebenitzeko.

Autobusa AC-DCren kontzertua

AC-DC taldeak, martxoak 31 asteartea, Bartzelonan eskainiko duen kontzertura joateko autobusa antolatu da.

ko autobusa antolatu da. Oraindik ez dago irteera lekua zehaztua, baina Donostia edo inguruko herri batean izango litzateke. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Bartzelonarantz eta kontzertu, ostean, bueltatuko da. Joan-etorria 50 euro dira eta eserleku kopurua mugatua da. Bidaiaren berri gehiago jakiteko bus_acdc@hotmail.com helbide elektronikora bidali mezuza.

Inauterietako zozketa

Inauterietan Zirko Mundialeko konparsan urdaiazpiko bat zozketatu zen; zerbaki saritua 347 da. Saria jasotzeko deitu 943 371448 telefonora (15 eguneko epea dago).

Arrantza baimena

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du 2009ko denboraldiko arrantza baimena eskatzeko epea ireki dela. Baimena bideratu nahi dutenek astearte eta ostegunetan 19:30etatik 20:30etara egin ahalko dute elkartean. Baime-na eskatzeko azken eguna martxoaren 12a izango da.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe



Korrika 16

Korrika 16a Lasarte-Oriatik apirilaren 2an pasako dela eta, nahi duen guztiak Km-a lor dezake laguntza baten truk. Interea duzuen talde, erakunde edo besteren batek Muntteri AEK euskaltegia dei dezake edo bertara jo dezake. 943 37 28 63.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Ostiral goizean egin zuten hormairudia Emakumeen Zentro Zibiko kideek eta inguratutakoek.



Larunbateko ospakizunak modu eta giro ezinhobean hasi zituzten Bilgune Feministeko neskek.

Jai giro ederrean igaro zituzten Emakumeen Eguneko ospakizunak

Emakumeen Zentro Zibikoak eta Lasarte-Oriako Bilgune Feministak hainbat ekitaldi antolatu zituzten asteburu osoan zehar

TXINTXARRI

Ostiralean hasi ziren Emakumearen Nazioarteko Eguneko ospakizunak. Udalak eta Emakumeen Zentro Zibikoak elkarlanean alde batetik, eta Lasarte-Oriako Bilgune Feministak bestetik hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Ostiralean bertan hasi ziren ospakizunak, Zentro Zibikoak emakumeek eginiko eskularen erakusketa bat ipini zuten Brigiden plazan eta gero hormairudi bat ere egin zuten. Gauean berriz, afaltzera joan

ziren Txintxardin Beltza jatezera ehun emakume inguru.

Bilgune Feministak ere ostiralean hasi zituen ekitaldiak bideforum batekin; 4 meses, 3 semanas, 2 dias filma eskaini zuten Xirimiri elkartearen. Abortu librea aldarrikatu nahi dute Bilgune Feministeko kideek, eta filma ere gai horri buruzkoa izan zen. Larunbatean berriz, goiz hasi ziren ospakizunekin. Eguerdiko hamabietan geratu ziren trikipoteoa egiteko eta giro alai jarri zuten erdiguneko kaleetan. Ondo-

ren bazkaltzera joan ziren Xirimiri elkartera. Bazkaldu eta gero kalejiran hurbildu ziren udaletxe aurrera deituta zuten kontzentziora.

Emakumeen Egunean berriz, igandean, Donostian burututako manifestaziora zuten biek ere, bai Bilgune Feministak baita Zentro Zibikoak deialdia egina.

Eguna amaitzeko berriz, EPAko Lan eta lan beti lan antzerki taldeak *Entre mujeres* antzezlan eskaini zuen kulturetxean. Txalo zaparrada ederrak jaso zituzten. •



Mezetatik atera zirenak sorpresa polita hartu zuten kontzentrazio musikalarekin.



Entre mujeres antzezlan eskaini zuen EPAko Lan eta lan beti lan antzerki taldeak. Antzezlanean emakume talde bat bildu zen aspaldiko partez, eta bakoitzaren gora beherak azaleratu ziren.